

Independentziarat

UNE historiko batetan bizi garenik ezin uka. Gaur autodeterminazio eskubidea aipatzen denean, subiranotasuna, hots, herrien subiranotasuna aldarrikatu nahi da, zeren autodeterminatzeko subjektua herria bera baita.

Alderdikraizaren aroan bizi gara, beste aldetik: alderdi politikoen Estatuia bihurtu da demokrazia formala. Marko juridiko osoa, legeak barne, Estatuak erregulatzen du, alderdi-Estatuak.

Jakina denez, demokrazia formala ez da herriaren ordezkatzeko zuzena. Alderdien bitartez, bestelakatu egiten da norberaren eginkizuna eta partehartzea. Alderdiek jendea ordeztzen dute.

Hego Euskal Herrian, alderdi politikoen artean, HBk ez dauka oraindik ohizko alderdi-eraketa hori, zeren estatuarekiko antagoini aurkezten baitu bere burua eta konstituzio espainiarraren aurka.

Hala ere, HBk, alderdia den aldetik, ezin bazter dezake alderdiaren funtzionamendua: jende askotxok, gainera, alderdi klasiko bihurtu da. Guretzat, nahiz eta alderdi klasiko ez izan, ohizko joku demokratiko formalean sarturik dagoenez gero (gehiengo/gutiengo, kontsentsua eta abar), nola-bait, sistemak, alderdi-eratzeko mota horrek, zenbait arlotan, harrapaturik dauka.

Euskal subiranotasuna eta autodeterminazio eskubidea aipatzerakoan argi dago PSOE eta PP (eta UPN) kontra daudela erabat. EEK estatutua aipatzearekin nahikoa du; eta nahikoa ez balitz, espainiar estatua, konstituzioa eta guzti, onartzen du. EAK bere baldintzak jarri ditu independentzia mozioak aurkezteko, eta badakigu nola bukatu den, beste aldetik, EA eta EAJ arteko gatazka amaigabea. EAJk, bere aldetik, estrategia «propioa» omen du.

Beraz, nahiz eta puntualki halako independentziarako alderrikapenak egin zenbait udaletxetan, epe

ertainean ezintasuna, eta, ezintasunaren poderioz, etsipena ekar ditzakete alderdiak. (Etsipena, une historiko honetan, inoiz baino kaltegarriagoa da.)

Beraz, proposamen gisa, Euskalherri osoan mugitzen diren eta bizirik dauden erakunde eta herri mugimendu guztien garaia dela uste dugu: Ekologi taldeetatik hasi eta kirol taldeetan bukatu, kultura, hezkuntza eta hainbat arlotan dauden indar biziak euskal subiranotasunaren arazoa hartu behar dute bandedatzat une honetan: Behetik hasi behar da mugimendu zabal bat, «Herri Frontea» bihurtzeko.

Ez dugu uste HBk une honetan daraman politika egiteko modua egokia denik, zeren arazoa ez baita alderdi batek (edo bik) zerbait aurkeztea eta herri mugimenduak, geroago, hori berori bereganatzea. Alderantzizko joera da bultzatu behar dena. Ez dugu uste herri mugimenduei solidaritatea eskatu behar zaiela. Aldrebes, ezer egitekotan, herri mugimenduen premiak, beharizanak, eta une honetan, subiranotasun-nahia bideratu beharko luke (lukete).

Beraz, gure ustez, lekuan lekuko mugimenduek beren independentzia eta autonomiarako aldarrikapenak egin behar dituzte unean. Eskoletan, ikastolan, unibertsitateetan, enprezetan, auzoetan, maila guztietan subiranotasun orokorra alde batetik, eta bestetik, aldi berean, autonomia eta arloko subiranotasun berezia, eskatu behar dira. Honela, eta honela bakarrik autodeterminatu egin gitezke, zeinek bere arloan eta denok batera nazio bezala. Bestela abstraktukeria gera gitezke, platonismo hutsean.

Honela, badauka zentzua, kasurako, Unibertsitate publikoetan Euskalherriko independentzia eskatzea, eta aldi berean, Unibertsitateko bererako autonomia eta independentzia aldarrikatzea. Edo eta kultur munduan, AEK independentziaren alde

agertzen eta, era berean, euskara gure hizkuntza nazional bakarraren aldeko apostu autonomoa egitea.

Maila orokorrean, eta alderdiek dauzkaten mugak gero eta nabarmenagoak izanik, *Euskaria, herrien liga* eta *herria 2000* eliza bezalako erakunde eginkizuna izan liteke herri mugimendu horien guztien aldarrikapenak koordinatzea, zeren erakunde horietan ez baitago inolako bestelakatzetik, ezalako boterea lortzeko nahirik eta grinarik. Beroriek euskal subiranotasuna lortzeko «*Herri Erakundearen Asanblada Orokorra*» baten enbrioa izan litezke. Gainera, aipatu erakunde horien bitartez, hala udal-letxe nola diputazio zein parlamentuetan subiranotasun eta independentziaren aldeko mozioak aurkez daitezke. Gero, eta ez lehen, alderdi politikoei bidera dezaketeela *Asanblada Orokorra* horrek erabakiko duena.

Behetik gorako proiektuak aurkeztu eta eztabaida daitezkeen bezala, *Asanblada Orokorra* horren bidez Euskalherriko herrialde guztietan subiranotasun aldeko manifestazioak konboka daitezke, bai eta independentziaren aldeko herri erreferenduma ere.

Gainera, indarkeriaren arazoa dela kausa edo, —norberaren ahulezia ezkutatzeko dueneko sasiargudia, bestela—, batzuk eta besteek ezer ez egiteko ekiditearren, herri mugimenduak, zeintzu printzipioz, indarkeriarekin ez baitaukate inolako loturarik, subiranotasuna bultzatzea.

Honela, bakea nahi duten guztion nahiak bilduz, eta bakezko bide batez, subiranotasunaren aldeko mugimendu orokor sendoa sor daitekeelakoan gaude. Hala biz.

JOSE LUIS HERRERO
JOSEBA TOBAR ARBULU
EHU-UPV IRAKASLEAK

El Salvador erditzen ari da

EL Salvador gero eta motelago entzuten dira morteroen danbatekoak, hitzen oihartzunak, aldiz, gero eta ozenago. Badirudi, gerra pitinka baztertzaren ari dela, eta haren lekua bake-irudiko nonbaitera daramaten negoziaketak betetzen ari direla.

Munduko ezkerrearen baitan oraindik hasi gabea zelarik dogmakeria eta monolitokeria sendatzeko terapia kolektibo eta bortitza, Ertamerikako errepublika nimen hartan, gerrilariak, oinutsik edo gorbatahun, pentsakera fosilduari jadanik tiroka hasiak ziren. Mende luzeetako injustiziaren aurka borrokatzen ziren bitartean, ez zioten bake-unerik ematen politika-helburuak eta metodoak xeheki aztertze eginkizunari. Hasiera batetan, elkartasun internazionalistaren mundutxo honetan egunero arnasa hartzen dugunoi, halako susmoak jaten zigun barrena: horrenbeste elkarriketarekin iraultzaren portura helduko ote dira? Denborak, ordea, argitu digu arazoa ez dela, horrelako portua iristea, baizik eta, ibaiaren emaria gero eta oparagoa izan dadin, gero eta itsasoratze zabalagoa izan dezan.

El Salvadoren, berdinketa militarra helduak dira aspaldi. Amarruz lortutako berdinketa, zeren tantoak galdu eta galdu zihuan aldeak, inperialismoaren laguntza guztia jasoz eusten zion demari. Milioi t'erdia dolar eguneko, herria masakratzeko. Baldintza horietan, berebiziko garaipena da Nazio Askapenerako Farabundo Marti Fronteak eraso

erraldoiari eutsi izana, eguneko espazio militar eta politiko berriak bereganatuz. Gauzak horrela, eta nazioarteko mundu-aldaketak kontutan harturik, FMLNko gudariak ohartu dira benetako Iraultza dela mendetako dependentzia, diktadura eta miseria besterik ezagutu ez duen lurraldean, independentzia, garapena, demokrazia eta konbibiendiari bideak zabaltzea. Eta nola lortu hori? Ausardia eta borrokazaletasuna areagotzearekin batera, kontsentsua eta presio-bide guztiak jorratuz. Aspalditik, bai FMLN eta bai helburu horien atzetik lanean diharduten herri-erakundeak irabazia dute, hala barruan nola nazioartean, bere boza entzunerazteko eskubidea. Eta solidaritate-lanetan dihardugunok, euren bozgorailu izan nahi genuke, munduko informazioa kontrolatzen duten kanal gezurtien aurkako lehian.

Garai erabakiorrak bizi dira El Salvadoren. Betikorra zirudien gerrari amaiera ikusten hasi zaio. Ez baina, indar herrikoiek etsitzen ari direlako, baizik eta, munduko erregeimen kriminalenetako eta kanpotik babestuenetako batek, negoziaketa-mahaian jarri behar izan duelako. Urte gehiegi dira hamabi, herriaren odola isurtzen jarraitzeko. El Salvadoreko gatazkaren sustrai historikoa —funtsean Latinamerikako gainerakoena bera, ez da epe laburrean konponduko. Baina lortzear dauden askatasun demokratikoak, esperantzazko lurrikara izango dira kontinenteko milioika ondare-gabetuentzat. El Sal-

vador bezalako herrialde batean, desmilitarizatzea, eta bide horretan Indar Armatuak depuratzea, eta bi armadak botere zibilaren menpeko polizi-indar bakar batean bateratzea, bete bete iraultzailea da.

Nazio Batuen Erakundea eginkizun garrantzitsua jokatzen ari da arteketotzan. Ez da bere kabuz etorri. FMLNren botereak etorri arazi du, belarrietatik helduta, lekuko izan dadin, Gobernuaren armadako eta eskuin basatiko sektore batzuk akordioei ipintzen dizkieten trabena. Eta nazioarteko notarioa izan dadin, El Salvadoren eskuratu baina munduan eza gutzen ez diren lorpenena.

Baina FMLNk argi dauka negoziazioetan kontsentsuaren ari direnak, neurri handi batetan, presio militarri zor zaizkiola. Izan ere, 1989ko ofentsiba gertatu arte, Cristiani eta oligarkiaren ordezkariak ez ziren benetan hasi negoziatzen. FMLN prest dago negoziazioa modu guztietan bultzarazteko. Baita indarrarekin ere.

El Salvador epe laburrean «bake armatu» batez erdituko da. Epe luzera, ordea, bideak jorratzen eta umeak sortzen ari da.

CARLOS ORDONEZ
ANTTON ELOSEGI
KOMITE INTERNAZIONALISTAKO KIDEAK

BERRIAK ZIRI




XABIER ARZALLUZ
EAKko EBBko lehendakaria
DEIA
1991-IX-28

«Egitarauari buruz baino gutxiago hitzegin da karterei buruz»



ANTONI ASUNCION
Espetxeetako Idazkari Nagusia
EL MUNDO
1991-IX-28

«Espetxeratutako ETakideek jadanik ez dute osatzen kolektibo bat, ez dute ezer kontrolatzen»



ULD SALEK
Errepublikak Arabiar Saharari
Demokratikoko Kanpo
ministrea
EL PAIS
1991-IX-28

«Fronte Polisarioak ezin dio kontzesio gehiagorik eman Madrili»



BASSAM ABOU CHERIF
lasser Arafaten aholkularia
SUD OUEST
1991-IX-28

«Palestinaren Askatasunerako Erakundeak berak izendatuko ditu Bake Konferentziako ordezkariak»

ZAKILIXUT

© Olariagak

